


ISOLAMENDU ETA BEROGAILU SISTEMAK



Eskuarki, egunez, temperatura eroso egokia 19 eta 21°C bitartekoa izan ohi da; gauez hobe da berogailua itzalita edo kontsignako 15-17°C bitartean edukitzea.	0
Gelaren batean berogailua erabiltzen ez baduzu, mantendu gela horien ateak itxita .	0

Ba al zenekien...

erradiadoreen gainean arropa hezeak jartzen badituzu, barruko airearen hezetasun-gradua igoko dela eta energia gehiago beharko duzula temperatura eroso mantentzeko?


Neguan, gauez, jaitsi pertsianak eta itxi gortinak bero-galerak saihesteko.	0
Egunez, mantendu hegoalderantz orientatutako leihoen gortinak irekita , horrela, eguzkiaren beroa aprobetxatuko duzu etxea epeltzeko.	0
Tximinia baldin baduzu, itxi tiroa erabiltzen ari ez zarenean.	0
Alfonbrak aukera ona dira lur hotzetako isolamendua hobetzeko.	0
Gela bateko barruko airea gehiegi lehortzen bada, jarri urez betetako katilu bat erradiadore baten gainean: hezegailu baten lana egingo du.	0
Kokatu geletako altzariak modu egokian: ez jarri besaulkiak edo sofak erradiadoreen ondoan.	0

Ba al zenekien...

erradiadore bat osorik edo zati batean estaltzen duen gortina batek beroa leihorantz joatea eragingo duela?

Saia zaitez berogailu-sistema elektriko konbentzionalak (erradiadore eta konbektore elektrikoak) ez instalatzen .	0
Erabili silikona, masila edo burletak aire- infiltrazioak murrizteko.	€
Pertsiana aukeratzen duzunean, aukeratu zirrikiturik gabeko kutxa dutenak, hau da, kutxa estankoa dutenak.	€€
Erabili iragazki isolatzaileak dituzten uhal-pasagailuak pertsianetan.	€

Uhal-pasagailua iragazki isolatzailearekin




Instalatu **balbula termostatikoak** erradiadoreetan, % 8 eta % 13 bitarteko energia-aurrezkoa lortuko duzu.





Jarri **panel isolatzaileak** erradiadoreen atzean: hobeto aprobetxatuko duzu berogailua eta ez duzu berorik galduko etxebizitzaren hormetatik.



Balbula termostatikoa



Panel isolatzaileak



Berogailuz berotu gabeko gela edo lekuetan **tutueria** agerian baduzu, **isolatzaile termikoak** (maskorrak) jar ditzakezu, horrela, bero-galerak eta kondentsazioak (ur hotza) saihestuko dituzu.



Leihoak berritzea baino aukera merkeagoa da **gortinetan estalki** termikoak jartzea: galera eta irabazi termikoak 7°C-tan murriztu ditzakezu.



Ba al zenekien...

beira bikoitza eta isolamendu termiko indartua dituen leiho batek isolamendu termikorik gabeko leiho berberak baino % 60 gehiago aurrez dezakeela?

Zure etxeko bero-igorgailuak (**erradiadoreak**) aukeratzen dituzunean, aukeratu **errendimendu handikoak**.



Ba al zenekien...

3 zentimetroko kortxo geruza batek eta metro bateko lodierako horma batek isolatzeko ahalmen berbera dutela?

ARIKETA PRAKTIKOA

Etxeko aire-korronteak aurkitzeko, piztu kandela bat haize handia dagoen egun batean, eta eutsi kandela kanpoko aireak sartzeko aukera izan dezakeen etxeko leiho, ate edo beste edozein punturen ondoan. Garra kulunkatzen bada, aire-infiltrazioak dituen gune bat aurkitu duzula esan nahi du. Orain, badakizu hor neurri zuzentzailearen bat aplikatu behar zenukeela!